

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Dakigun moduan, seguraski, gure produktua ez dute pertsonak indibidualki erosiko (ez baita bizikleta bat edo mugikor bat bezain erakargarria) baizik eta garbiketa-enpresek eta agian erakunde publikoek erosiko dute. Hau da, gure bezeroak, garbiketa enpresa pribatuak izango dira normalean (guk diseinatutako makina oso egokia baita haien lana errazago aurrera eramateko, ez baitute denbora galduko zaborra non dagoen bilatzen). Horrez gain, baliteke herri desberdinetako udalak gure produktuan interesatuta egotea (agian haien herritik hurbil dauden zonalde naturalak, mendiak, garbitu nahi dituztelako). Talde edo erakunde ekologistak izan daitezke ere gure bezeroak, hau da, ingurune naturalak garbi mantendu nahi dituzten taldeak; aldaketa klimatikoaren kontra dauden talde guzti hauek (gaur egun garrantzi handia dutenak, hain zuzen ere). Bukatzeko, baliteke gobernuak gure produktuan inbertsio handia egin nahi izatea. Gaur egun pil-pilean dagoen gaia da aldaketa klimatikoa eta haren aurka joatea, ezinbestekoa da iritzi publikoa alde izateko (gure makinak erostea eta erabiltzea, aldaketa klimatikoaren aurka joatearen aldeko ariketa bat da). Azkenik, garrantzitsua da esatea aplikazioa edonork eduki dezakeela, beraz, ezin dugu baztertu inor. Hala ere, seguraski jende gaztea izango da aplikazioan gehien interesatuta egongo den jendea; haiei interesatzen baitzaie gehien gure planetaren etorkizuna.

